



XXXI. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketako sarituak.

***Birigarroa zugaitzean da
xoxoa sasi onduan,
gaur goizeane eginahalean
hor ari ziran kantuan.
Kukua berriz zugaitzik zugaitz
kuku hemen da kuku han
kalendario gabe badaki
noiz etorri ta noiz juan.***

(Lazkao Txikik kukuari)



LAZKAO TXIKI

**XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETA
2023. urtea**

Antolatzailea:
ARGI-BERRI Elkarte

Laguntzailea:
ORDIZIAKO UDALA

LAZKAO TXIKI XXXII. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Bertsolaritza goraka ari da... Duela urte batzuk pentsatzen ez genituen pauso eta urrats berriak eman dira bertsolaritzaren inguruan. Bertsolaritza eta bertso-zaletasuna parez pare doaz aurrera eta hala behar, batek bestearen beharra baitu aurrera egitekotan.

Guk ere hasi ginenean ez genuen pentsatzen gauzek hain bide bizkorra eraman behar zutenik. Joxe Mielen babesa bilatu genuen, bera baitzen une hartan Goierriko bertsolaririk ezagunena. Esan ere halaxe genioen hasi berri hartan: "izan ere Lazkao Txiki izan da eta da oraindik bertsolaritzaren ispilu eta eredu paregabea goierritarrentzat eta berak eta beraren lanak azaltzen dizkie ongien gaurko gazteei bertsolaritzaren itzal-argiak". Baina laster joan zitzaigun Joxe Miel. Hasi eta hurrengo urtean bertan umezurtz utzi gintuen. Joxe Miel joan bazitzaigun ere guk geuretzat nahi dugu bere itzala eta hasi bezala bere izenean jarraituko dugu lanean.

Gizon handia bihurtu da Lazkao Txiki txikia. Haren aipamena handia da, zabala da. Bizitan hain txikia, hain eskasa zirudien hura, hil zen eta gizon aipatua eta famatua bilakatu zaigu. Guk ere ez daukagu saltzeko, jakina. Eta hasiera hartan genioen bezala bera aurkeztu nahi dugu bertsolaritzaren eredu bezala.

Joxe Miel joan bazitzaigun ere, zutik dirau haren ereduak. Eta horixe da gure zeregina, horixe da nahi duguna. Joxe Mielen izpiritua, euskal izpiritua, bertsolari izpiritua, txertatu nahi dugu ernaltzen ari diren muin berrietan. Horixe da gure helburua, horixe dugu gure helmuga.

Enbor zaharra landare berriek bakarrik ordezkatzeko esaten genuen. Eta horixe da gu guztion zeregina. Landare berriak sustatzea, zaintzea... Asmo horrekin sortu genuen Bertso Eskola eta horixe bera da gure lehiaketa honen helburua.

Guk ere sarreran aipatzen genuen aurrerakadaren, berrikuntzaren partaide izan nahi dugu. Guk ere gure alea jarri nahi dugu. Gure ekimenak balioko al du guztion ekimena laguntzeko, bultzatzeko, sustatzeko, eta sendotzeko.

ANTOLAKETA

Lehiaketa hiru mailatan banatzen dugu:

- **Gaztetxoan maila:** 13 urte artekoentzat (2023an 14 betetzen ez dituztenentzat).
- **Gazteen maila:** 14-18 urte artekoentzat (2023an gutxienez 14 urte eta gehienez 18 urte betetzen dituztenentzat).
- **Helduen maila:** 2004an edo aurretik jaiotakoentzat.

LANAK

- **Gaztetxoan mailan,** parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidaltzeko. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 2 eta gehienez 4 izango dira.
- **Gazte eta Helduen mailetan,** berriz, parte hartzaile bakoitzak nahi adina bertsopaper bidaltzeko. Bertsopaper bakoitzeko idatzi beharreko bertsoak gutxienez 8 eta gehienez 12 izango dira.

GAIA

- **Gaztetxoan mailan,** neurria eta doinua libreak izango dira, ez ordea gaia. Gaia "SAKELAKORIK GABE EZIN BIZI" izango da.
- **Gazte eta Helduen mailetan,** berriz, gaia, neurria eta doinua bezala, librea izango da, bakoitzaren aukerakoa.

HELBIDEA

Lanak helbide honetara bidaliko dira: **ARGI-BERRI Elkarte** (Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa)
Gipuzkoa kalea 15-behea 20240 ORDIZIA

Nahi bada e-postaz ere bidali daitezke lanak: aitor-c@aek.eus

EPEA

Lanak 2023ko uztailaren 1erako bidaliko dira aurretik aipatu helbidetakoren batera.

BALDINTZAK

(guztiekin bete beharrekoak)

- Bertsoek jatorrizkoak, argitaratu gabekoak eta beste lehiaketa batean saritu gabekoak izan behar dute.
- Lanak baldintzerakoan originala eta lau kopia bidaliko dira (ohiko posta erabiliz gero).
- Lanak **izenordez bakarrik** sinatuko dira. Izenorde hori bertso sortaren barrenean jartzea hobeto. Eta **izenordearekin bakarrik bidaliko zaizkigu**. Izenorde horrek guztiz ezezaguna izan behar du.
- **Beste gutunazal batean,** izenordearekin batera bidaliko zaizkigu beste xehetasun guztiak: egilearen izenordea eta izena, adina (jaiotze-data), helbidea, telefono zenbakia, e.a. (karnetaren kopia bidaltzea gomendagarria da).
- Bertsoak **ordenagailuz idatzirik** bidaltzea eskatzen da.
- Bertso bakoitzari bere **ordena-zenbakia** jarriko zaio.
- Ezinbestekoa da, bestalde, bertso sorta bakoitzaren **doinua** izenburuaren ondoan zehaztea.
- E-mailez bidaliz gero, berriz, mezu berean alde batetik **bertsoak** eta bestetik **egilearen datuak** bidaliko dira.

SARIAK

Sari hauek jasoko dituzte: (garaileek **TXIKI-a bana jasoko dute**).

Gaztetxoek:		Gazteek:		Helduek:	
1.ak	200 euro	1.ak	300 euro	1.ak	500 euro
2.ak	100 euro	2.ak	200 euro	2.ak	400 euro
3.ak	50 euro	3.ak	100 euro	3.ak	300 euro

Oharra: diru-sariei legez dagozkien atxikipenak egingo zaizkie.

Epaimahaiaren esku geratzen da sarien banaketa. Edozein sari eman gabe utzi dezake behar adinako kalitatea topatzen ez badu. Eta, bestalde, sariak erdibanatzeko aukera ere berea izango du, hala baderitza. Sari horiez gain aipamen bereziak ere egon daitezke.

SARIBANAKETA

2023ko irailaren 10ean egingo da Ordizian Euskal Jaien barruan.

EPAIMAHAI

Epaimahaia antolatzaileek, Ordiziako Udalaren oniritziarekin, antolatuko dute eta aurrez jakinaraziko dute nortzuk osatuko duten. Epaimahaiaren erabakiak aldaezinak izango dira.

LANEN JABETZA

Lan sarituen jabetza antolatzaileen esku geratuko da. Antolatzaileek eskubide osoa izango dute lan horiek argitaratzeko. Egileak bere lanak argitaratzeko asmorik izango balu, antolatzaileekin konpondu beharko luke.

INFORMAZIOA

Beste informaziorik edo behar izanez gero telefono zenbaki honetara dei dezakezue: **649011262** (Aitor).